Ayuntamiento Udala
irun
Tokiko Gobernu Batzarrak onetsia 2022/12/21-eguneko bilkuran.
Aprobado por la Junta de Gobierno Local, en sesión de 21/12/2022
Irun, 27/12/2022
IDAZKARIA / LA SECRETARIA

CBA AUDITORIO BERRIAREN ARGIZTAPEN ESZENIKOAREN KONTRATAZIOA
CONTRATACIÓN DE LA ILUMINACIÓN ESCÉNICA DEL NUEVO AUDITORIO DEL CBA

– *PRESKRIPZIO TEKNIKOEN PLEGUA* / PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS –

***ARLO SUSTATZAILEA* / ÁREA PROMOTORA**	EROSKETA ETA EKIPAMENDUAK / COMPRAS Y EQUIPAMIENTOS
***ESPEDIENTE KODEA* / CÓDIGO EXPEDIENTE**	2022ZAUN0117

1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea da Carlos Blanco Aguinaga kultur ekipamendurako gunea (aurrerantzean CBA2, Irungo San Juan Harria plaza, z/g) egokitzeko bigarren fasean sartutako espazio eszeniko berriak behar bezala funtziona dezan argiztapen eszenikoa hornitzeko eta instalatzeko kontratazioaren ezaugarriak definitzea.

Espedienteak lehentasuntzat hartzen du azpiegiturak osatzen dituzten elementu guztien zuzkidura osoa, nahiz eta aztertzen ari garen espazio eszenikorako ahalik eta hornidura osoena lortzea duen helburu, material horrekin ahalik eta ekitaldi gehien egin ahal izateko.

Irungo Udalak badu proiektu eszeniko bat, eta hortik sortu da argiztapen eszenikoko instalazio hau. Horrenbestez, erreferentziatzat hartu behar da, eta egoki irizten diren aldaketak egin beharko zaizkio, egiten den lanaren ondorioz gerta daitezkeen hobekuntzetan, eskakizunetan edo zehaztapenetan oinarrituta.

Instalazio honen bidez, kultur gune berri bat eman nahi zaio udalerriari, lehendik dauden espazioekin bat ez datozen beste era bateko ekitaldiak har ditzan. Horrez gain, espazio balioaniztun eta moldakorra lortu nahi da, errendimendu handiagoa eta beste era bateko ekitaldietarako aukerak izateko.

2. PROIEKTUAREN AURREKARIAK ETA TESTUINGURUA

2015eko urrian inauguratu ondoren, ospe handia du Irungo Carlos Blanco Aguinaga (CBA) liburutegiak. 2.500 m^2 ditu, eta jarduera agenda bizia eta interesgarria. Erabilera nagusia liburutegia da. Gainera, bigarren mailako espazioak ere baditu, hala nola tailerrak, aurkezpenak edo ponentziak egiteko aretoak, ikasteko eta elkarlanean aritzeko guneak, informatika gela eta abar.

Gaur egun, eta 2023ko maiatzean amaitzeko aurreikuspenarekin, eraikitze fasean dago CBA kultur gune berria (hemen CBA2 izenekoa), CBA liburutegiari atxikia. Fase hori



garatuta, liburutegiak funtsak gordetzeko lekua irabaziko du, bai eta egungo Gazteriaren Arretarako Bulegoak (IGazte) utziko duen lekua ere, eta areto batzuk hustuko dira, gune berrian egin ahal izango diren jarduerak hartzen baititu gaur egun.

Zentroak topaketarako, sorkuntzarako eta kultur ekintzarako gunea izan nahi du. Arteen eta pertsonen, kulturaren eta herritarren artean hizkuntzen eta mintzairen bidez zubiak sortuko dituen zentroa, hain zuen. Diziplina anitzekoak, garaikideak, tokiko arteak, berrikuntzak eta lankidetzak osatutako unibertsoa sortu nahi dute bertan aurrera eramango diren programek.

Balio horietan oinarrituta eta hainbat arte hizkuntzaren bidez sortuko da zentroaren edukia, eta dimentsio handiago baterantz proiektatuko da CBA, arte aniztasunean eta arteak gizartea eraldatzeko duen gaitasunean oinarrituta.

Azken batean, CBA kultur gune berriak arte eta kultura garaikidea sortzeko, prestatzeko, eskuratzeko eta zabaltzeko gunea izan nahi du, bai eta gazteriarentzako gune garrantzitsua ere.

3. KONTRATUAREN XEDE DEN KOKAPENA

Irungo Udalak Carlos Blanco Aguinaga Kultur Gune eta Liburutegia du. Kultur Gune horrek hainbat espazio ditu, eta bertan kultur jarduerak egiteko aukera ematen du. Jendea biltzen den leku publikoa da, eta era askotako jendea joaten da bertara. Zentroa handitu ondoren (CBA2), jarduerak hainbat ordutegitan egin ahal izango dira bertan.

Gune hori San Juan Harria plazan dago, z/g, Irungo udalerriaren erdian (Gipuzkoa). CBA1 eraikina (liburutegia) sestrapean dago, eta San Juan Harria plazaren iparraldeko erdiaren azpian geratzen da. Plazaren erdialdetik sartzen da bertara, eta beste plaza bat sortzen da beheko kotan. Kultur gune berria egiteko, 2015. urtean inauguratutako liburutegia handitu eta luzatuko da, eta haren kota berean haziko da plazaren hegoaldeko erditik Udaletxeraino, gutxi gorabehera. Baldintza agiri honen xede den auditorio-aretoa espazio berri horretan egongo da, handituko den zatian, hain zuzen ere.

San Juan plazan irekitako patio obalatuaren inguruan eratua, huraxe izanik instalazioetara argi naturala sartzeko puntu bakarra, Kultur Guneak bi sarrera berri irabazi ditu jarduketa berriarekin: Jesus kalean ezarriko dena, ekipamendurako sarbidea Alde Zaharretik emanez, eta bigarrena San Juan plazako patiotik, zeinak bi kotako altuera izango baitu, oinezkoentzako pasabide baten bidez eta sotoaren mailan.

Handitze hori eginda liburutegiko espazioak handituko dira (biltegi berria jartzea eta ikasketa gela handitzea), Kulturarako eta Gazteentzako areto gehiago izango dira, bai eta tamaina handiagoko bi gune ere, hau da, areto eszenikoa (bigarren mailako gelekin, hala nola aldagelak) eta harremanetarako espazioa.

IRUNGO UDALA
IDAZKARITZA
SECRETARIA
AYUNTAMIENTO DE IRUN

Beraz, kultur gune eta espazio eszeniko berri honetan (CBA2) aurki daitezkeen areto nagusien artean honako hauek daude:

- **Liburutegia:** Egungo liburutegia handitu egingo da, eta ikaste eta artxibo toki gehiago izango ditu.

- **Irun Factory/ GazteARTEAn:** Taldean lan egiteko gunea da, bai eta gazteei eta artistei arreta emateko gunea ere.

- **Elkarreragineko erabilera anitzeko espazioa (topagunea eta erakusketak):** Solairu libreko hallean dago, espazioen banaketa antolatzen du eta obalo kristaldunaren bidez banatuko du argi naturala.

  Bi kultura erabilera horien arteko *foyer* lana egiten du elkarreragineko gune horrek, haren bidez komunikatzen baitira liburutegia eta espazio eszenikoa. Aldi baterako erakusketak eta ekitaldi txikiak egin ahal izango dira bertan, eta espazio eszenikoaren *overflow* areto gisa balio dezake behar denean, murgiltze motako erakusketak egiteko lekua edo, besterik gabe, pasabide berezi eta esanguratsua izan liteke eraikinaren barruan.

  Horretarako, zenbait panel mugikor izango ditu gune horrek, espazioa hainbat modutan konfiguratzeko aukera emango dutenak, bere sinergia bera eta lotzen dituen gainerako espazioekin duen sinergia aldatzeko eta une bakoitzean nahi den erabilera zehatzera egokitzeko. Panel mugikorrez gain, ikus-entzunezko azpiegiturak ere izango ditu, ikus-entzunezko ekipamendua sartu ahal izateko.

- **Kamerinoak:** zerbitzua emango diote auditorioaren erabilerari.

- **Auditorioa:** hainbat konfigurazio (4) egiteko aukera emango duen gunea izango da, bai zutik bai eserita egoteko ikuskizunetarako, harmailen antolaketaren arabera. Zehazki, espediente honen xede den areto eszenikoak 425 m^2 inguru ditu eta kultur guneko sotoan dago.

  Espazio eszenikoa ekitaldietarako aretoa da, eta 145-513 lagun bitarteko edukiera aldakorra du, konfigurazioaren arabera; izan ere, erabilera anitzeko aretoa da, harmaila atzeragarria eta gurpilen gaineko besaulkiak dituena. Horrek aukera emango du jendea eserita edo zutik egoteko edo bi aukeren konbinazioak egiteko.

  Era berean, italiar erako antzoki konfiguraziorako pentsatua dago eszenatokia, baina diferentzia batekin, eszenatokiaren ertzean agertoki horren barruan ezkutatzen den besaulki ilara bat sartu baita. Hala, bada, espazioaren aukeren artean, italiarraz gain, beste konfigurazio batzuk egiteko aukera ere badago, hala nola hondarrezko antzoki formatua, jendea zutik dagoela egiten diren ekitaldiak, pasabide formatuak eta abar.

  Proiektua eta eskatutako irismenaren kokapenak errazago ulertzeko, eranskinean jaso da "I. eranskina - Planoak eta argazkiak" kultur gune berriari buruzko informazio orokorra,

eraikinaren oinplanoko infografiak eta planoak barne. Plano horiek planteatutako ekipamenduen eta espazioen banaketa islatzen dute informazio gisa.

4. PROIEKTUAREN IRISMENA ETA HORNIDURAREN BALDINTZAK

Gaur egun, CBAren handitze hori gauzatzen ari da, eta 2023ko maiatzean bukatuko da, gutxi gorabehera. CBA2 osoaren egikaritze horrek arkitektura zibileko egiturak, akaberak eta instalazioak hartzen ditu, espazio eszenikoaren berezko arkitekturaren eta instalazio eszenikoen aurrez aurre.

Areto eszenikoari dagokionez, kontua da areto eszenikoaren arkitektura eta instalazio orokorrak (klima, argiztapena...) gauzatuko direla, baina ez dira sartzen erabilera espezifiko horri dagozkion instalazioak eta ekipamenduak. Kontratu honen barruan daude Instalazio eszeniko horietako batzuk.

Dagoeneko garatutako proiektu eszenikoa, kontratu honen oinarri dena, hiru ataletan banatzen da, diziplina eszeniko desberdinen arabera:

- Argiztapen eszenikoa
- Egitura eta mekanika eszenikoa
- Ikus-entzunezkoak

Espediente honen irismena argiztapen eszenikoaren diziplinara mugatzen da soilik. Helburua da espazio hori behar adina azpiegituraz eta argiztapen ekipamenduz hornitzea, ekitaldiak egin ahal izateko Irungo Udaleko Kultura Arloak definitutako erabilera programaren arabera.

Esleipendun gertatzen den enpresak proiektu eszenikoan jasotako alderdi guztiak konpondu beharko ditu, eta teknika onenak, kalitatea, malgutasuna eta espazioaren etorkizuneko beharretara egokitzea baloratuko dira.

Betiere, enpresak produktu berriak jarri beharko ditu, zaharkituta ez daudenak eta egoera ezin hobean, azpiegituretan eta ekipamenduetan. Enpresak hartuko ditu bere gain ekipamendu berriaren edo gaur egun daudenen kalitatea, diseinua edo funtzionamendua aldatzen duten akatsen edo edozein gertaeraren ondoriozko kostu guztiak.

Partida bakoitzerako unitateko prezioetan sartuta daude langileen kostuak, garraio gastuak, baliabide teknikoak, baliabide materialak, elementu osagarriak, horniduraren ondoriozko materialak eta sor litezkeen gainerako gastuak.

Lan guztiak behar bezala egiteko behar den material guztia biltegiratzea eta garraiatzea ere sartua dago partida bakoitzaren prezioaren barruan. Era berean, hornitu beharreko materialen eta ekipamenduaren garraioa eta biltegiratzea behar bezalako baldintzetan egin

beharko da, hezetasunagatik, kolpeengatik, hautsagatik eta abarrengatik haren kalitatea alda ez dadin.

Jarraian, lizitazioak barne hartzen dituen bi irismenak azalduko ditugu. 1. prezioak espedientearen oinarrizko irismenari egiten dio erreferentzia, eta 2. prezioari, berriz, dauden beharren, dagoen aurrekontuaren eta eskaintzen diren unitateko prezioen arabera ekingo zaio, espazioaren beharrak osatu ahal izateko.

Horren harira, eskaini beharreko ekipamenduaren bi zerrendetan jaso dira baloratu beharreko irismenak: 1. prezioa (oinarrizko irismena) eta 2. prezioa (aukerak). 1. prezioan gaur egun planoan aurreikusitako beharrak sartzen dira, kontuan hartuta zentroa eraikitze fasean dagoela eta, beraz, ez dagoela espazioen neurri zehatzik. Alde horretatik, zerrenda hori izango da 1. prezioa irizpiderako balorazio ekonomikorako oinarria, eta azkenean kontratatutako unitateak aldatu ahal izango dira. Eskainitako prezio unitarioaren arabera fakturatuko dira unitate horiek. Bestalde, 2. prezioan (aukerak) jasotako elementuak eta kopuruak eskaini beharko dira, aurreko elementuen aukerak edo aurreko irismenaren handitzeak direnak.

Hala, espediente hau esleitu ondoren, azken zuinketa egingo da, eta erosi beharreko ekipoen guztizko kopurua baloratuko da, esleipendunak eskaera/fabrikazioa egin dezan. Beraz, eskainitako unitateko prezioen eta azkenean eskatutako unitateen arabera kontratatuko da espedientea, eta Irungo Udalak jatorrizko zerrendan sartutako ondasun baten edo batzuen hornidura ez eskatzeko aukera izango du, eta horregatik esleipendunak ez du izango inolako kalte ordainik jasotzeko eskubiderik. Era berean, eta horretara behartuta ez egonda ere, Administrazioak eskatu ahal izango du, eta esleipendunak onartu beharko du, egokitzat hartzen badu, jatorrizko zerrendan jasotakoen antzeko ondasunak edo haien familiakoak hornitzea. Kasu horretan, zerrendan eskainitako prezioen arabera finkatuko da prezioa.

5. IRTENBIDE TEKNIKOAREN DESKRIBAPENA

CBA kultur gunea handitzeko espazio eszenikoaren proiektu eszenikoaren helburua da eremu hori azpiegituraz eta ekipamenduz hornitzea, aretoa berariaz erabili ahal izateko konfigurazio eta ekitaldi mota desberdinetarako. Soilik argiztapen eszenikoaren espezialitatera mugatzen da espediente hau.

a. Auditorioa.

Kultur Gune berriaren barruan dago auditorioa eta ahalik eta balioaniztasun handiena izan nahi du dituen gaitasunen barruan. Hala bada, harmaila atzeragarria du, besaulkiak ezkutatzeko sistema bat agertokiaren ertzean eta gurpildun besaulki batzuk, aretoak konfigurazio desberdinak izan ditzan. Horrek esan nahi du, azpiegitura eszenikoei dagokienez, moldakortasun berdina eman behar zaiola espazioari, eta konexioek edo ekipamenduaren muntatze aukerek ez dutela mugatu behar, besterik gabe, italiar erako antzoki formatura.

IRUNGO UDALA
IDAZKARITZA
SECRETARIA
AYUNTAMIENTO DE IRUN

Guztira bost sarbide ditu espazioak, hiru aretoan eta bi agertokian. Gainera, aretoaren eta agertokiaren artean komunikazio bikoitza dago, sorbalda bakoitzean eskailera bana baitago. Bestalde, komunikazio bat dago kontrol teknikorako kabinaren eta agertokiaren artean galeria tekniko baten bidez. Galeria hori aretoko liburutegiaren aldetik igarotzen da, gurpilen gaineko besaulkiak biltegiratzeko aurreikusitako armairuen gainetik.

Kontrol teknikorako kabinaren azpian, diziplina desberdinetarako espazio partekatu bakarra izango dena, beste bi gune daude. Lehenengora Udaletxearen aldeko bereizte atartetik sar daiteke, eta biltegi erabilera soila du areto honetarako; bigarrena ere espazio teknikoa da, baina bigarren mailakoa, eta biltegirako erabili ahal izango da hala behar izanez gero, baina batez ere koadro elektrikoak hartuko ditu. Bigarren gune horretatik sartzen da kontrol teknikorako kabinara, metalezko eskailera baten bidez.

Aretoa ± 0'00 metroko kotan dago, proiektu eszenikorako kota erlatibo gisa ezarritako kotan. Kota horretan daude elkarreraginerako espazioa eta liburutegia. Agertokia +0'66 metroko kotan dago, baina haren atzealdean geratzen den korridorea ere ± 0'00 metroko kotan dago. Hala ere, agertokiaren alboko sarbidea bai dago kota berean.

Erabilera eszenikorako egiturei dagokienez, bai aretoak bai eszenatokiak HEB 140 profilez osatutako errail-habeak dituzte. Horiei esker, besteak beste, argiztapen elementuak eta ekipamendu eszenikoa eten ahal izango dira, kate motor puntualen eta trusseen bidez aretoaren kasuan, eta motordun haga batzuen bidez eszenatokian.

Aretoan, 50 mm-ko diametroko hodiak dituzten barra perimetral batzuk ere egongo dira, argiztapen, audio, bideo edo ehun ekipamendua eteteko.

Eszenatokian 27 haga egongo dira guztira, 25 cm-ko arteko-ardatzarekin. Horietatik 6 motordunak izango dira eta gainerakoak eskuzkoak.

Motordunak elementu astunagoetarako pentsatuak daude, hau da, ikus-entzunezko ekipamendua eta argiztapenekoa. Beraz, gutxienez 500 kg-ko karga ahalmena izango dute haga bakoitzeko. Altzairuzko sareta bikoitzeko hagak izango dira, eta beheko hodiak 50 mm-ko kanpo diametroa izango du, aretoko barrek bezala.

Eszenatokiko lurzorua gaur egun egiten ari den lanaren barnean dago, eta zurezko oholez osatutako lurzorua izango da, arrastelen gainean. Lurzoru horretan zazpi estalki erregistragarri egingo dira guztira, 60 x 60 cm-koak gutxienez, argiztapen eszenikorako nahiz ikus-entzunezkoetarako konexio kutxak ezarri ahal izateko.

Era berean, aretoko zoladuran bost estalki erregistragarri egongo dira aretoan bertan, gehi bi besaulkien armairuetan eta azkena kontrol teknikorako kabinaren azpiko aretoan. Erregistro horiek guztiek eszenatokiaren gutxieneko neurri berberak izango dituzte, baita helburu bera ere.

IRUNGO UDALA
IDAZKARITZA
SECRETARIA
AYUNTAMIENTO DE IRUN

b. <u>Argiztapen eszenikoaren sistema</u>

Argiztapen eszenikoaren sistemak barne hartzen ditu ikuskizunetako argiztapen sistema osatzen duten azpiegitura, ekipamendua eta gainerako azken elementuak, hau da, ikuskizunean edo ekitaldian bakarrik erabiltzen dena, hartatik kanpo utzita aretoaren argiztapena edo mantentze eta/edo muntatze lanetarako erabiltzen dena, horiek espediente honen irismenetik kanpo geratzen baitira. Horrenbestez, espezialitate hau elementu autonomotzat har dezakegu eraikineko instalazio multzoan.

Espaziorako ezarritako erabilera anitzeko programaren arabera kalkulatu diren beharrei erantzuten die proposaturiko diseinuak, kokapen zehatzenak eta hoberenak aztertuz eta aukeren aldakortasuna finkatuz diseinurako gidalerro gisa.

Horrela, argiztapen eszenikoaren sistemak ondoren aipatzen diren elementuak hartuko ditu (geroago xehatu eta azalduko direnak):

- Azpiegitura: interkonexiorako behar diren kable eta/edo kanalizazio guztiek osatzen dute, bai eta barruti eszeniko osoan zehar banatutako argiztapen kutxek ere.
- Kontrolatzeko eta erregulatzeko azken elementuak: besteak beste, argiztapen kontsola, nodoak, switchak, splitterrak...
- Argiztapeneko azken elementuak: errekorte proiektagailuak, buru mugikorrak...

Gune horrek, konfigurazioen eta ekitaldien tipologien arloan bilatzen den balioaniztasunari eta aldakortasunari erantzuteaz gain, gaur egun bizi duten aldaketa unera egokitu behar du.

Gaur egun, LED teknologia goraka doa gelditu gabe, eta argiztapen konbentzionala bigarren mailan geratu da, eta etorkizunean desagertu egingo da. Hala ere, ezin da pentsatu argiztapen konbentzionala iraganeko zerbait dela eta orain ez duela inolako eraginik. Kontua da bi sistemak elkarrekin bizi direla oraindik eta, beraz, kontuan hartu behar dira.

Horrenbestez, LED proiektagailuetarako pentsatutako instalazioa izango da, baina zuzeneko zirkuituak zirkuitu dimmerizatuetara aldatzeko aukera emango du proiektagailu konbentzionalak erabiliko diren kasuetarako, dela alokatutako proiektagailuak direlako, konpainia gonbidatu batek eraman dituelako edo Irungo Udalak beste espazio batzuetan dituen argiztapen proiektagailuak direlako.

Instalazioa ezin da inola ere LED teknologiara kondenatu, hori muga bat izango bailitzateke eta hautsi egingo bailuke ahalik eta aldakortasun handiena izateko oinarrizko ideia. Lehen adierazi bezala, konexio kutxak, patchak, kableak eta beharrezko kanalizazioak izango dituzte azpiegiturek. Lehen batean, obrak egiteko kontratuaren xede dira kanalizazio gehienak, eta, beraz, lehentasunezkoa izango da diziplina horretarako aurreikusitako kanalizazioak erabiltzea.

Kanalizazio horiek dagoeneko eskuragarri egongo dira espazioan. Eremu edo puntu batzuetan ez badago kanalizazio nahikorik edo egokirik hemen aurreikusitako azpiegiturak behar bezala egiteko, orduan kanalizazio horiek esleipendunak jarri beharko ditu, betiere Jabearen eta/edo Obrarako Laguntza Teknikoaren aldez aurreko berariazko baimenarekin.

Guztira 23 kutxa jarriko dira, bi motatan bana daitezkeenak: argiztapen proiektagailuen konexiorako kutxak eta kontrol teknikorako posturako eta argien mahairako kutxak. Lehenengoetatik 21 kutxa proiektatu dira sabaiaren eta lurzoruaren artean banatuak, bai eszenatokian bai aretoan; bigarrenetatik, berriz, bi baino ez dira behar, horietako bat kontrol teknikorako kabinan eta bestea aretoko lurzoruaren erdian, uneren batean edo konfigurazioren batean programazioa puntu horretatik egin behar bada ere.

Argiztapen proiektagailuetarako kutxa bakoitzak (IE-A deituak agertokiko zorurakoak eta IE-B deituak eszenatokiko eta aretoko sabairakoak) zuzeneko zirkuitu trifasikoko banakako linea bat du elikadurarako, gehi DMX seinale linea bat eta Ethernet seinale linea bat kontrolerako. Linea bakoitzerako erabiliko diren konektoreak honako hauek izango dira: 16 A-ko EEE bat, 5 polokoa, 5 pineko XLR bat eta RJ45 bat, hurrenez hurren.

IE-A kutxek, agertokiko erregistroetan daudenez, ezin izango dute 11'5 cm-tik gorako altuera izan, lekurik ez dagoelako; IE-B kutxek, berriz, gainazalean instalatzeko kutxak izango dira.

IE-C eta IE-D kutxak bigarren motakoak dira, konexio mailan berdinak eta maila fisikoan desberdinak, dagozkien kokalekuetara egokitzeko. Biek izango dituzte hiru elikatze linea monofasiko, powercon konektore batean amaituak, bi DMX seinale linea (bat sarrerakoa eta bestea irteerakoa) 5 pineko XLR konektoreekin eta Ethernet seinale linea bat RJ45 konektore batekin. IE-C kutxa bereziki delikatua da; izan ere, nahiko txikia da erregistroan kutxa horretarako dagoen espazioa, eta, horregatik, ezin da 5 cm-tik gorakoa izan; IE-D kutxa, berriz, IE-B kutxak bezala, gainazalean instalatzeko kutxa da.

Kutxa finko horiez gain, bi kutxa eramangarri sartu dira, bata zuzeneko zirkuitukoa eta bestea zirkuitu dimmerizatukoa. Bi kutxa horiek atzapar normalizatuak izan beharko dituzte truss baten hodietan, areto barra batean edo haga batean ainguratzeko, dagokionaren arabera.

Zuzeneko zirkuituen kaxa eramangarriaren helburua da elikadura trifasikotik monofasikora pasatzea eta konektore gehiago izatea, kasu honetan, 16 A-ko schukoak, argiztapeneko LED proiektagailuak zuzenean konektatzeko. Guztira sei schuko parekatu izango dituzte hiru zirkuitu babestutan, bakoitza kutxa berean.

Zirkuitu dimmerizatuen kutxa eramangarria izango da lanpara konbentzionaleko argiztapen proiektagailuak erabiltzea ahalbidetuko duen elementua, behar hori sortzen denean, eta guztira bi dimmer kanal izango ditu.

Kutxa finkoen zuzeneko zirkuitu guztiak CS.IE izeneko koadro elektriko bakar batetik elikatuko dira. Koadro hori kontrol teknikorako kabinaren azpian egongo da, eta seinale linea guztiak kontrol teknikorako kabinan dagoen rack 01 armairutik sortuko dira.

Behar bezala kableatutako kutxa horiek osatzen duten azpiegituraz gain, kutxa finkoen zuzeneko zirkuitu guztiak sortzen diren koadro elektriko bat ere egongo da, CS.IE izenekoa (argiztapen eszenikoko bigarren mailako koadroa), kontrol teknikorako kabinaren azpian egongo dena, eta rack bat, kontrol teknikorako kabinan, DMX eta Ethernet seinale lineen sorleku-patchak barruan dituena, bai eta Ethernet-FO switch bat ere.

Argiztapen eszenikoa kontrolatzeko eta erregulatzeko sistema osatzeko, proiektu eszenikoaren barruan 1.024 kanaleko argiztapena kontrolatzeko mahaia, mahai horretarako 24"-ko bi ukipen monitore, DMX-Ethernet bihurgailu bat eta hiru DMX spliter aurreikusi dira.

Sistema horrek guztiak, oro har, argiztapen proiektagailu batzuk erabili eta kontrolatzeko aukera ematen du. Proiektagailu horiek propioak edo kanpokoak izan daitezke (alokairukoak edo konpainia gonbidatuak eramanak).

Zentroak modu independentean funtziona dezan eta, horretarako, oinarrizko argiztapen hornidura izan dezan, argiztapen proiektagailu batzuk sartu dira kontratu honen irismenaren barruan. Guztira sei proiektagailu mota daude: 15/30° errekortea, 25/50° errekortea, LED parea, spot buru mugikorra, errekorte buru mugikorra eta wash buru mugikorra.

Azkenik, etorkizunean egon litezkeen argiztapen proiektagailu horiek edo beste batzuk behar bezala garraiatzeko eta biltegiratzeko, proiektagailu orga bat sartu da proiektuan ezinbesteko osagarri gisa, ekipamendu hori behar bezala erabiltzeko eta, ondorioz, gehiago irauteko aukera emango baitu.

c. Ekipamenduaren ezaugarriak

Jarraian, argiztapen eszenikoaren sistema osoa osatzen duten elementu eta ekipamendu bakoitzak bete behar dituen ezaugarriak deskribatuko ditugu. Ezaugarri horien helburu nagusia da elementu bakoitzerako eskatzen den gutxieneko kalitatea eta funtzionaltasuna ezartzea.

Eskainitako produktua osatzen duten materialen zehaztapenak bete behar dituzte lizitatzaileek. Era berean, dokumentazio teknikoan xehetasun osoz banakatu behar dira produktu bakoitzari berariaz aplikatutako materialak eta tratamenduak, eta ez dira baliozkoak elementu zehatzaren deskribapen generiko ez-zehatzak.

Lizitatzaileek elementu bakoitzaren marka eta modelo zehatza eta fabrikatzailearen fitxa teknikoa sartu beharko dituzte beren eskaintzetan.

ARGIZTAPEN KUTXAK
IE-A MOTAKO KUTXA
Argiztapenerako IE-A motako konexio kutxa. Lurzoru eszenikoaren erregistroan txertatutako gainazaleko kutxa. Honako konexio hauek ditu: 1x CEE16A5P-H, 1x XLR5-H, 1x RJ-45. Gehieneko neurriak: 245x115x55 mm. Metalezko kutxa inguratzailea, RAL 9005 kolorez margotua. Barne egongo dira ingeniaritza, CAD diseinua, 3D diseinua, laguntza teknikoa, testuak zuzenean inprimatzea, logoak zuzenean inprimatzea, kableak in situ konektatzea, loturen, pieza berezien eta osagarrien zati proportzionalarekin. Unitate instalatua neurtua, burutua, frogatua eta memorian, planoetan eta baldintza agirietan emandako zehaztapenak beteta, Zuzendaritza Fakultatiboak eta Obrarako Laguntza Teknikoak onartu ondoren.
IE-B MOTAKO KUTXA
Argiztapenerako IE-B motako konexio kutxa. Sabaian instalatutako gainazaleko kutxa. Honako konexio hauek ditu: 1x CEE16A5P-H, 1x XLR5-H, 1x RJ-45. Gehieneko neurriak: 275x145x100 mm. Metalezko kutxa inguratzailea, Zuzendaritza Fakultatiboak eta Obrarako Laguntza Teknikoak zehaztu beharreko kolorez margotua. Barne egongo dira ingeniaritza, CAD diseinua, 3D diseinua, laguntza teknikoa, testuak zuzenean inprimatzea, logoak zuzenean inprimatzea, kableak in situ konektatzea, loturen, pieza berezien eta osagarrien zati proportzionalarekin. Unitate instalatua neurtua, burutua, frogatua eta memorian, planoetan eta baldintza agirietan emandako zehaztapenak beteta, Zuzendaritza Fakultatiboak eta Obrarako Laguntza Teknikoak onartu ondoren.
IE-C MOTAKO KUTXA
Argiztapenerako IE-C motako konexio kutxa. Altuera txikiko kaxa egokitua, aretoko lurzoruko erregistroan txertatzeko. Honako konexio hauek ditu: 3x PowerCon20A-NAC3MPXXB, 1x XLR5-H, 1x XLR5-M, 1x RJ-45. Gehieneko neurriak: 475x500x50 mm. Metalezko kutxa inguratzailea, Zuzendaritza Fakultatiboak eta Obrarako Laguntza Teknikoak zehaztu beharreko kolorez margotua. Barne egongo dira ingeniaritza, CAD diseinua, 3D diseinua, laguntza teknikoa, testuak zuzenean inprimatzea, logoak zuzenean inprimatzea, kableak in situ konektatzea, loturen, pieza berezien eta osagarrien zati proportzionalarekin. Unitate instalatua neurtua, burutua, frogatua eta memorian, planoetan eta baldintza agirietan emandako zehaztapenak beteta, Zuzendaritza Fakultatiboak eta Obrarako Laguntza Teknikoak onartu ondoren.
IE-D MOTAKO KUTXA
Argiztapenerako IE-D motako konexio kutxa. Sabaian instalatutako gainazaleko kutxa. Honako konexio hauek ditu: 3x PowerCon20A-NAC3MPXXB, 1x XLR5-H, 1x XLR5-M, 1x RJ-45. Neurriak: 275x145x100 mm. Metalezko kutxa inguratzailea, RAL 9005 kolorez margotua. Barne egongo dira ingeniaritza, CAD diseinua, 3D diseinua, laguntza teknikoa, testuak zuzenean inprimatzea, logoak zuzenean inprimatzea, kableak in situ konektatzea, loturen, pieza berezien eta osagarrien zati proportzionalarekin. Unitate instalatua neurtua, burutua, frogatua eta memorian, planoetan eta baldintza agirietan emandako zehaztapenak beteta, Zuzendaritza Fakultatiboak eta Obrarako Laguntza Teknikoak onartu ondoren.
ZUZENEKO ZIRKUITUEN KUTXA ERAMANGARRIA
Argiztapenerako konexio kutxa eramangarria. Atzaparrak dituen kutxa eramangarria, profil tubularretan zintzilikatzeko. Honako konexio hauek ditu: 1xCEE16A5P-M, 6x Schuko16A-H. Guztira 16A-ko 3 etengailu magnetotermiko ditu, irteera zirkuituak binaka babesteko. Gehieneko neurriak: 650x115x55 mm. Metalezko kutxa inguratzailea, Zuzendaritza Fakultatiboak eta Obrarako Laguntza Teknikoak zehaztu beharreko kolorez margotua. Barne egongo dira ingeniaritza, CAD diseinua, 3D diseinua, laguntza teknikoa, testuak zuzenean inprimatzea, logoak zuzenean inprimatzea, kableak in situ konektatzea, loturen, pieza berezien eta osagarrien zati proportzionalarekin. Unitate instalatua neurtua, burutua, frogatua eta memorian, planoetan eta baldintza agirietan emandako zehaztapenak beteta, Zuzendaritza Fakultatiboak eta Obrarako Laguntza Teknikoak onartu ondoren.
ZIRKUITU DIMMERIZATUEN KUTXA ERAMANGARRIA

IRUNGO UDALA
IDAZKARITZA
SECRETARIA
AYUNTAMIENTO DE IRUN

Dimmer eramangarria. 2 kanal ditu, eta modu autonomoan funtzionatzen dute ontziko sakagailuen bidez, LCD pantaila integratuaren edo DMX 512 seinalearen bidez monitorizatuak. Konexioak: 1x XLR3-H eta 1x XLR3-M, DMX seinalerako, 2x Schuko16 A-H, 3.500 W-rainoko potentzia irteerarako. Neurriak: 182x92x65 mm. Pisua: 1'10 kg. Hodian bermatzeko besarkaderak eta bihurketarako bi egokigailu ditu, XLR3-H-tik XLR5-M-ra eta XLR3-M-tik XLR5-H-ra. Unitate instalatua neurtua, burutua, frogatua eta memorian, planoetan eta baldintza agirietan emandako zehaztapenak beteta, Zuzendaritza Fakultatiboak eta Obrarako Laguntza Teknikoak onartu ondoren.

KONTROL ETA ERREGULAZIO SISTEMA

ARGIZTAPENA KONTROLATZEKO MAHAIA

Argiztapena kontrolatzeko kontsola unitatea. 1.024 kanalerako kontrola, 1.024 kontrol irteera arteko interkonexio patcha, 10.000 sekuentzia urrats, 100 orrialdeko 999 submaster. 4x1.000 kontrol paleta bitarte proiektagailu robotizatuentzat, 1.000 efektu eta makro talde eta 1.000 snapshot, kurbak eta kolore bideak. Egoera solidoko SSD disko gogorra, 100 mm-ko bi potentziometro eta kontrol fisikoa duten 40 submaster ditu, stop eta go teklen bidez. Kanpoko 2 monitorerentzako (HDMI) irteera. Konexioak: 5x USB-A 3.1, 2x USB-C 3.1, 2x RJ-45, 4x XLR5-H DMX 512, RDM funtzioarekin, kontaktuen itxiera Sub-D konektorearen bidez, sarrerako eta irteerako OSC ataka. Kanpoko gatewaya SMPTE konexiorako, kontaktu itxierak, SN-232 ataka eta MIDI, MIDI Showcontrol eta MIDI Timecode komunikazioa. Elikadura unibertsala 100-240 V. Gehieneko neurriak: 870x365 x 115 mm. Zisne-lepoko LED linterna barne. Unitate instalatua neurtua, burutua, frogatua eta memorian, planoetan eta baldintza agirietan emandako zehaztapenak beteta, Zuzendaritza Fakultatiboak eta Obrarako Laguntza Teknikoak onartu ondoren.

24"-ko UKIPEN MONITOREA

24"-ko ukipen monitorea. LED pantaila diagonala 60'50 cm-koa, erantzun denbora 4 ms, distira 250 cd/m2, bistaratze teknologia IPS, kontrastea 1.000:1, touchscreen teknologia eta bereizmena 1.920x1.080, 16:9 erlazioa. Konexioak: 1xUSB-A 3.0, 1xHDMI, 1xVGA y 1x Audio IN 3'5 mm. Elikadura: 100-240 V 24 W (0'5 W ez-aktiboa). Gehieneko neurriak: 540x325x46 mm. Gehieneko pisua: 5'50 kg. Elikadura kablea, HDMI, USB eta VGA barne. Unitate instalatua neurtua, burutua, frogatua eta memorian, planoetan eta baldintza agirietan emandako zehaztapenak beteta, Zuzendaritza Fakultatiboak eta Obrarako Laguntza Teknikoak onartu ondoren.

DMX-ETHERNET BIHURGAILUA

DMX-Ethernet bihurgailu unitatea. sACN, Artnet I/II/IV, Kinet eta RTTrPLreko euskarria, RDM E 1.20 euskarri osoa, splitter, merger gisa lan egiteko aukera, aurreko konexioa, HTP/LTPren arteko lan konfiguragarria eta aACN irteeretarako lehentasuna. Konektoreak: 2x XLR5-M, 4x XLR5-F, 2x RJ-45 EtherCon. Elikadura posiblea PoE 802.15f gehienez 5 W. 19" eta 1 RUko rackean muntatzeko formatua. Gehieneko neurriak: 485x45x110 mm. Unitate instalatua neurtua, burutua, frogatua eta memorian, planoetan eta baldintza agirietan emandako zehaztapenak beteta, Zuzendaritza Fakultatiboak eta Obrarako Laguntza Teknikoak onartu ondoren.

DMX SPLITTERRA

DMX Splitterra. DMX 512 irteera atakak, RDMrekin bateragarriak, eta DMX 512 sarrera atakak, sarrera eta irteera bakoitzaren arteko isolamendu galbanikoa eta optikoa. Konektoreak: 3x XLR5-M, 10x XLR5-H (2 THRU, 8 OUT). Gehieneko kontsumoa 5 W, elikadura unibertsala 100-250 VAC. 19" eta 1 RU-ko rackean muntatzeko formatua. Gehieneko neurriak: 485x45x110 mm. Unitate instalatua neurtua, burutua, frogatua eta memorian, planoetan eta baldintza agirietan emandako zehaztapenak beteta, Zuzendaritza Fakultatiboak eta Obrarako Laguntza Teknikoak onartu ondoren.

ARGIZTAPEN PROIEKTOREAK

LED ERREKORTE PROIEKTAGAILUA, ZOOMA 15/30°



LED errekorte proiektagailua, zooma 15/30°. 60 LED, 2,50 W-koak, 20.000 orduko bizitza eta % 30eko argi galerarekin. 4 kolore tonalitateko sistema: urdina, berdea, gorria eta berde lima. 166 W-eko gehieneko kontsumoa, 100-240 VAC 50/60 Hz elikadurarekin. Konexioak: 2 Powercon, seriean elikatzeko sarrera eta irteerarekin, 1x XLR5-M eta 1x XLR5-H, DMX 512 seinalea seriean sartu eta ateratzeko, RDM funtzioarekin. Gehieneko neurriak: 515x415x340 mm. Gehieneko pisua: 17'20 kg lentea barne. 15°-30° bitarteko proiekzio lentea, proiektagailuaren gorputzarekin bat datorren markakoa, Ø 48-50 mm-ko hodian bermatzeko kakoa, segurtasun kablea eta Powercon-Schuko konektorea duen elikadura kablearekin. Hornitutako unitatea neurtua, frogatua eta memorian, planoetan eta baldintza agirietan emandako zehaztapenak beteta, Zuzendaritza Fakultatiboak eta Obrarako Laguntza Teknikoak onartu ondoren.

LED ERREKORTE PROIEKTAGAILUA, ZOOMA 25/50°

LED errekorte proiektagailua, zooma 25/50°. 60 LED, 2,50 W-koak, 20.000 orduko bizitza eta % 30eko argi galerarekin. 4 kolore tonalitateko sistema: urdina, berdea, gorria eta berde lima. 141 W-eko gehieneko kontsumoa, 100-240 VAC 50/60 Hz elikadurarekin. Konexioak: 2 Powercon, seriean elikatzeko sarrera eta irteerarekin, 1x XLR5-M eta 1x XLR5-H, DMX 512 seinalea seriean sartu eta ateratzeko, RDM funtzioarekin. Gehieneko neurriak: 515x415x340 mm. Gehieneko pisua: 15'30 kg lentea barne. 25°-50° bitarteko proiekzio lentea, proiektagailuaren gorputzarekin bat datorren markakoa, Ø 48-50 mm-ko hodian bermatzeko kakoa, segurtasun kablea eta Powercon-Schuko konektorea duen elikadura kablearekin. Hornitutako unitatea neurtua, frogatua eta memorian, planoetan eta baldintza agirietan emandako zehaztapenak beteta, Zuzendaritza Fakultatiboak eta Obrarako Laguntza Teknikoak onartu ondoren.

PAR LED PROIEKTAGAILUA

PAR Led proiektagailua kolore iturriarekin. PAR proiektagailu sistema, 4.881 lm-ko gehieneko argi fluxuarekin. 60.000 ordu baino gehiagoko bizitza, % 30etik beherako argi galerarekin; 33'90-36'80 lm/W-ko errendimendua, kolore tenperaturaren arabera; 17/41°-ko angelu tartea, 7"-ko irekierarekin. RGB-A koloreak (gorria, berdea, urdina eta anbarra). Kolore tenperatura: 2.200-6.500 °K; gehieneko kontsumoa: 143 W; barrualderako babes maila: IP20. Konexioak: 2x RJ-45, DMX 512 seinalerako, RDM funtzioarekin. Gehieneko neurriak: 220x220x325 mm. Gehieneko pisua: 4'50 kg. Barne hartzen ditu kolorerako elikatze iturria, proiektagailuaren gorputzarekin bat datorren markakoa, Ø 48-50 mm-ko hodian bermatzeko kakoa, RJ-45 eta XLR3-H arteko tenkagailua, XLR3-H-tik XLR5-M-ra bitarteko tenkagailua, segurtasun kablea eta elikatze kablea schuko konektorean bukatua. Hornitutako unitatea neurtua, frogatua eta memorian, planoetan eta baldintza agirietan emandako zehaztapenak beteta, Zuzendaritza Fakultatiboak eta Obrarako Laguntza Teknikoak onartu ondoren.

SPOT LED PROIEKTAGAILU ROBOTIZATUA

Spot motako LED proiektagailu robotizatua. 470 W-eko potentzia 6.000 °K-an, 40.000 orduko bizitzarekin, 6'20° eta 48'80° bitarteko argi irekiera doigarria. PC motako optika, 120 mm-ko diametrokoa, 22.000 lumeneko argi fluxuarekin gehienez. Gobo birakari eta indexagarriak dituzten 2 gurpil, 7 gobo trukagarrirekin, 270 º-ko inklinazioko mugimenduarekin eta 540º-ko biraketarekin. RDM, DMX 512, Art_Net eta sACN sistemarekin bateragarria den kontrola. Etengailu bipolarra, eteteko babes termikoarekin gaintenperaturaren kasuan, aireztapen isila haizagailu axialen bidez, atzeko argiztapeneko display grafikoa, konfigurazio autokargagarriko bateria. 740 W-eko gehieneko kontsumoa, 100-240 VAC 50/60 Hz elikadurarekin. Konexioak: 1 Powercon True1, elikadurarako sarrera, 1x XLR5-M eta 1x XLR5-H, DMX 512 seinalea seriean sartu eta ateratzeko, eta 1x RJ-45. Gehieneko neurriak: 250x360x595 mm. Gehieneko pisua: 24'00 kg. Ø 48-50 mm-ko hodian bermatzeko 2 gako ditu, segurtasun kablea eta elikatze kablea Powercon TRUE 1-Schuko konektorearekin. Hornitutako unitatea neurtua, frogatua eta memorian, planoetan eta baldintza agirietan emandako zehaztapenak beteta, Zuzendaritza Fakultatiboak eta Obrarako Laguntza Teknikoak onartu ondoren.

ERREKORTE MOTAKO LED PROIEKTAGAILU ROBOTIZATUA

IRUNGO UDALA
IDAZKARITZA
SECRETARIA
AYUNTAMIENTO DE IRUN

Errekorte motako LED proiektagailu robotizatua. 470 W-eko potentzia 6.000 °K-an, 40.000 orduko bizitzarekin, 6'20° eta 48'8° bitarteko argi irekiera doigarria. PC motako optika, 120 mm-ko diametrokoa, 22.000 lumeneko argi fluxuarekin gehienez. 4 ebakitze hortz dituen sistema, 4 plano fokaletan, 120º-ko errotazioarekin eta kontrol kanal makroarekin, 270 º-ko inklinazioko mugimenduarekin eta 540º-ko biraketarekin. Kontrol bateragarria RDM, DMX 512, Art_Net eta sACN sistemekin. Etengailu bipolarra, eteteko babes termikoarekin gaintenperaturaren kasuan, aireztapen isila haizagailu axialen bidez, atzeko argiztapeneko display grafikoa, konfigurazio autokargagarriko bateria. 740 W-eko gehieneko kontsumoa, 100-240 VAC 50/60 Hz elikadurarekin. Konexioak: 1 Powercon True1, elikadurarako sarrera, 1x XLR5-M eta 1x XLR5-H, DMX 512 seinalea seriean sartu eta ateratzeko, eta 1x RJ-45. Gehieneko neurriak: 250x360x595 mm. Gehieneko pisua: 25'00 kg. Ø 48-50 mm-ko hodian bermatzeko 2 gako ditu, segurtasun kablea eta elikatze kablea Powercon TRUE 1-Schuko konektorearekin. Hornitutako unitatea neurtua, frogatua eta memorian, planoetan eta baldintza agirietan emandako zehaztapenak beteta, Zuzendaritza Fakultatiboak eta Obrarako Laguntza Teknikoak onartu ondoren.
WASH MOTAKO LED PROIEKTAGAILU ROBOTIZATUA
Wash motako LED proiektagailu robotizatua. Wash proiektagailua, LED RGBW 40 W-eko 7 unitate dituena, 2.500 eta 8.000 °K arteko kolore tenperatura doigarria, 375 VA-ko gehieneko kontsumoa, 4°-tik 55°-ra bitarteko zoom tartea. DMX 512 kontrola, 16/20/28 kanalekin, Ethernet ArtNet eta RDM protokoloekin. 50.000 orduko bizitza estimatua, %30etik beherako argi galerarekin, 540º-ko biraketa eta 260º-ko inklinazioa. Konexioak: 2 Powercon True1, serieko elikadurarako sarrera eta irteerarekin, 1x XLR5-M eta 1x XLR5-H, DMX 512 seinalea seriean sartu eta ateratzeko, eta 1x RJ-45. Gehieneko neurriak: 225x190x340 mm. Gehieneko pisua: 6'50 kg. Ø 48-50 mm-ko hodian bermatzeko gakoa du, segurtasun kablea eta elikatze kablea Powercon TRUE 1-Schuko konektorearekin. Hornitutako unitatea neurtua, frogatua eta memorian, planoetan eta baldintza agirietan emandako zehaztapenak beteta, Zuzendaritza Fakultatiboak eta Obrarako Laguntza Teknikoak onartu ondoren.
OSAGARRIAK
PROIEKTAGAILUENTZAKO ORGA
Argiztapen proiektagailuak garraiatzeko eta biltegiratzeko orga. Buru mugikorrak, argiztapen barrak edo banakako argiak garraiatzeko aukera ematen du, barretan zintzilik daudenak eta barrak euskarrietan. Bi alboko panelek osatzen dute, 2.030 x 600 mm-ko esekitzeko zuloekin, eta luzetarako 4 profil metaliko, L 2.100 mm-ko luzerakoak. 2.100 mm-ko aluminiozko 4 hodi zintzilikatzaile, proiektagailuak eta tresnak zintzilikatzeko, eta D 100 mm-ko 4 gurpil (2 balaztadunak). Gehieneko guztizko neurriak: 2.100 x 2.030 x 600 mm. Gehieneko pisua: 83'00 kg. Unitate hornitu neurtua, burutua, frogatua eta memorian, planoetan eta baldintza agirietan emandako zehaztapenak beteta, Zuzendaritza Fakultatiboak eta Obrarako Laguntza Teknikoak onartu ondoren.
RACK ARMAIRUAK
RACK ARMAIRUAK ETA OSAGARRIAK
18RU RACK ARMAIRUA
18 unitateko rack armairua. Hotzean ijeztutako altzairuzko markoa, 1'20 mm-ko lodierakoa, eta 1,20 mm-ko lodierako plakak. Kristal epeldun atea, giltzaduna, eta 50 mm-ko diametroko gurpilak barne. 540 mm-ko sakonera erabilgarria. Gehieneko neurriak: 600x918x636 mm. 988 mm-ko altuera oinak barne. Gehieneko pisua: 50'00 kg. Akabera RAL 9004 beltzean. Barne hartzen ditu alboko panelak ixteko 4 giltza, Allen giltza bat, finkatzeko eta berdintzeko 4 oin doigarri, aurreko aterako 4 giltza eta M6 motako 20 torloju eta azkoin sorta. ANSI/EIA IER-310D, DIN41491 eta IEC60297 estandarrak betetzen ditu. Unitate instalatua neurtua, burutua, frogatua eta memorian, planoetan eta baldintza agirietan emandako zehaztapenak beteta, Zuzendaritza Fakultatiboak eta Obrarako Laguntza Teknikoak onartu ondoren.
RACK 1RU 600MM-RAKO HAIZAGAILU BIKOITZA

IRUNGO UDALA
IDAZKARITZA
SECRETARIA
AYUNTAMIENTO DE
IRUN

Haizagailu bikoitza plakan rackerako. Aluminioz egina. Zarata <51 db. Haizagailu bakoitzaren potentzia 20 W. 600 mm-ko racketan erabiltzeko. Gehieneko neurriak: 450x50x363 mm. Gehieneko pisua: 2'50 kg. Akabera RAL 9004 beltzean. Elikadura 240 VAC 50/60hz. Rack armairuaren marka berekoa. Unitate instalatua neurtua, burutua, frogatua eta memorian, planoetan eta baldintza agirietan emandako zehaztapenak beteta, Zuzendaritza Fakultatiboak eta Obrarako Laguntza Teknikoak onartu ondoren.
ESTALKI ITSUA 1RU 600MM
1 RU-ko estalki itsua. Altzairuz egindako plaka, 1'50 mm-ko lodierakoa, eta RAL 9004 hauts beltzeko estaldura. Gehieneko neurriak: 483x45x10 mm. Unitate instalatua neurtua, burutua, frogatua eta memorian, planoetan eta baldintza agirietan emandako zehaztapenak beteta, Zuzendaritza Fakultatiboak eta Obrarako Laguntza Teknikoak onartu ondoren.
1RU 600 M AIREZTAPEN SARETAREN ESTALKIA
1RU aireztapen saretaren estalkia. Altzairuz egindako plaka, 1'50 mm-ko lodierakoa, eta RAL 9004 hauts beltzeko estaldura. Aireztapenerako bao hexagonalez zulatua. Gehieneko neurriak: 483x45x10 mm. Unitate instalatua neurtua, burutua, frogatua eta memorian, planoetan eta baldintza agirietan emandako zehaztapenak beteta, Zuzendaritza Fakultatiboak eta Obrarako Laguntza Teknikoak onartu ondoren.
RACK EKIPAMENDUAK
24 ATAKAKO SWITCHA RJ45 4 SFP
24 atakako switcha RJ-45 24 oinarrizko ataka, 10/100/1000 BASE-T eta 4 100/1000 konbo. 56 Gbp arteko kommutazio ahalmena. 8K sarrerako helbide taula. 256 sarrera estatiko. Gehieneko ratioa: 64 byte 41'7 Mb/s. 4'1 Mbit-eko buffer paketearen memoria. CPU DDR3 128Mb memoria eta 32 Mb-eko flasha. Gehieneko potentzia kontsumoa 16'94 W, kontsumoa standby egoeran 6'55 W. 19"-ko rackean muntatzeko formatua, torlojuz lotu daitekeena, HH 1 okupatuz. Gehieneko neurriak: 440x140x45 mm. Gehieneko pisua: 2'50 kg. Unitate instalatua neurtua, burutua, frogatua eta memorian, planoetan eta baldintza agirietan emandako zehaztapenak beteta, Zuzendaritza Fakultatiboak eta Obrarako Laguntza Teknikoak onartu ondoren.
24 ATAKAKO RJ45 PATCHA
Patch panel RJ-45, 24 atakakoa. 24 ataka CAT 6 FTP. Aluminiozko panel estrusionatua, poliesterrezko etiketetarako etiketa-zorroarekin. F1 altzairuzko hagaxka kable-euskarria, 8 mm-ko diametrokoa. Akabera hautsezko estaldura elektrostatikoarekin (100-150 u). Eskaera bidez zuzenean inprimatzeko aukera. 19"-ko rackean muntatzeko formatua, torlojuz lotu daitekeena, HH 1 okupatuz. Gehieneko neurriak: 485x45x25 mm + hagaxka. Unitate instalatua neurtua, burutua, frogatua eta memorian, planoetan eta baldintza agirietan emandako zehaztapenak beteta, Zuzendaritza Fakultatiboak eta Obrarako Laguntza Teknikoak onartu ondoren.
DMX 13x XLR-5M PATXA
DMX 13M patch panela. 13 XLR5-M konektore ditu. Aluminiozko panel estrusionatua, poliesterrezko etiketetarako etiketa-zorroarekin. F1 altzairuzko hagaxka kable-euskarria, 8 mm-ko diametrokoa. Akabera hautsezko estaldura elektrostatikoarekin (100-150 u). Eskaera bidez zuzenean inprimatzeko aukera. 19"-ko rackean muntatzeko formatua, torlojuz lotu daitekeena, HH 1 okupatuz. Gehieneko neurriak: 485x45x25 mm + hagaxka. Unitate instalatua neurtua, burutua, frogatua eta memorian, planoetan eta baldintza agirietan emandako zehaztapenak beteta, Zuzendaritza Fakultatiboak eta Obrarako Laguntza Teknikoak onartu ondoren.
DMX 10x XLR-5M 2x XLR-5H PATCHA
DMX 10M+2H patch panela. 10 XLR5-M konektore ditu eta 2 konektore XLR5-H. Aluminiozko panel estrusionatua, poliesterrezko etiketetarako etiketa-zorroarekin. F1 altzairuzko hagaxka kable-euskarria, 8 mm-ko diametrokoa. Akabera hautsezko estaldura elektrostatikoarekin (100-150 u). Eskaera bidez zuzenean inprimatzeko aukera. 19"-ko rackean muntatzeko formatua, torlojuz lotu daitekeena, HH 1 okupatuz. Gehieneko neurriak: 485x45x25 mm + hagaxka. Unitate instalatua neurtua, burutua, frogatua eta memorian, planoetan eta baldintza agirietan emandako zehaztapenak beteta, Zuzendaritza Fakultatiboak eta Obrarako

IRUNGO UDALA IDAZKARITZA SECRETARIA AYUNTAMIENTO DE IRUN

Laguntza Teknikoak onartu ondoren.

SAI ENRACKABLE 500 W

750 VA etenik gabeko elikatze sistema. Ahalmen elektrikoa: 500 W 750 VA. Sarrera/irteerako tentsio nagusia: 230 V. Ohiko kargatze denbora 3 ordu. Edukiera: 139 min (50 W) 5 min (500 W). 4 irteera hartune IEC 320 Cl3. 19"-ko rackean muntatzeko formatua, torlojuz lotu daitekeena, HH 2 okupatuz. Gehieneko neurriak: 435x90x410 mm. Gehieneko pisua: 18'00 kg. Barne hartzen ditu Schuko-IEC C13 elikadura kablea, USB kablea, RE-232 seinale adimenduneko kablea eta rack armairuan muntatzeko euskarri errailak. Unitate instalatua neurtua, burutua, frogatua eta memorian, planoetan eta baldintza agirietan emandako zehaztapenak beteta, Zuzendaritza Fakultatiboak eta Obrarako Laguntza Teknikoak onartu ondoren.

RACKERAKO ERREGELETA, 1RU-KO 6/9 SCHUKO

Schukoentzako regleta bilgarria. Korrontea kontrolatzeko etengailuak aurreko aldean. F- EEE 7/4 motako schuko hartuneak. 6 hartune aurrealdean. 9 hartune atzeko aldean. 19"-ko rackean muntatzeko formatua, torlojuz lotu daitekeena, RU 1 okupatuz. Gehieneko neurriak: 485x45x116 mm. 2'50 m-ko elikatze kablea, Schuko EEE 7/7 akaberarekin. 16 - 250 VAC. 4.000 W gehienez. Unitate instalatua neurtua, burutua, frogatua eta memorian, planoetan eta baldintza agirietan emandako zehaztapenak beteta, Zuzendaritza Fakultatiboak eta Obrarako Laguntza Teknikoak onartu ondoren.

AZPIEGITURAK

KABLEATUA

DMX PROTOKOLOKO KONTROL KABLEA

DMX protokoloko kontrol kablea. Ahalmen txikiko multikore kablea, DMX edo RD485 protokoloaren bidez kontrolatzeko diseinatutako pantailatzea, 110 Ohm-eko inpedantzia izendatuarekin eta halogenorik gabe. 2 pare pantailatu eta 2 pare librez osatua: pare pantailatua, 7x0'20 mm Ø AWG24 mm-ko kobrezko eroale txirikordatuez osatua, PEX IEC 708 1'40 mm Ø-ko isolatzailea eta Al/PET % 100 PE H199 pantaila; pare ez-pantailatua, kobrezko eroalez osatua (26x0'20 mm Ø AWG18), PTC UNE 21-031 2'00mm Ø-ko isolatzailea eta PTC UNE 21-031 estalkia (tamaina izendatua 6'70 mm Ø) eta kolore beltzekoa. Gehieneko pisua: 56 kg/km. CPR EN 50575 araudia betetzen duena. Kablearen kanpoko estalkian egongo dira serigrafiatuak betetzen dituen araudiak. Nahitaez eman beharko zaio zuzendaritza fakultatiboari kableak betetzen dituen araudien fabrikatzaileak sinatutako ziurtagiri ofiziala. Baliabide osagarriak, laguntzak, jasotzeko bitartekoak (hala dagokionean), pilaketa, biltegiratzea, material txikia eta abar barne. Luzera unitate instalatua neurtua, burutua, frogatua eta memorian, planoetan eta baldintza agirietan emandako zehaztapenak beteta, Zuzendaritza Fakultatiboak eta Obrarako Laguntza Teknikoak onartu ondoren.

ETHERNET CAT6 DATU KABLEA

Ethernet Cat6A U/FTP datu kablea. Instalazio finkoetan erabiltzen diren ordenagailuak eta gailu informatikoak lotzeko datu kablea, beste instalazio batzuekin interferentzia elektrikoak saihesteko pantailatzea, 500 MHz-ko banda zabalerarekin eta halogenorik gabe. 4 pare pantailatuk osatua: PEX IEC 708 1'35 mm Ø-ko isolatzailea duen 1x0'56 mm Ø-ko AWG23 eroaleak osatzen du eroale pantailatu bakoitza, PE H199 pantailako parearekin eta FRLSHF estalkiarekin batera, Ø 7'40 mm-ko tamaina izendatua, eta kolore urdinekoa. Gehieneko pisua: 47 kg/km. Baliabide osagarriak, laguntzak, jasotzeko bitartekoak (hala dagokionean), pilaketa, biltegiratzea, material txikia eta abar barne. CPR EN 50575 araudia betetzen du. Kablearen kanpoko estalkian egongo dira serigrafiatuak betetzen dituen araudiak. Nahitaez eman beharko zaio zuzendaritza fakultatiboari kableak betetzen dituen araudien fabrikatzaileak sinatutako ziurtagiri ofiziala. Luzera unitate instalatua neurtua, burutua, frogatua eta memorian, planoetan eta baldintza agirietan emandako zehaztapenak beteta, Zuzendaritza Fakultatiboak eta Obrarako Laguntza Teknikoak onartu ondoren.

5X2'5 mm^2-ko ELIKATZE KABLEA



5x2,5 mm^2-ko RZ1-K(AS) kable malgua, honako hauek osatua: 5 motako kobrezko eroalea, 0,6/1 kV-ko zerbitzu tentsioa, XLPE isolamendua, sugarra hedatzen ez duena (UNE-EN 50265-2-1), suteak hedatzen ez dituena (UNE-EN 50266-2), halogenorik gabea (UNE-EN 50267-2-1), ke emisio txikia (UNE-EN 50267-2) eta gas korrosiboen emisio txikia (UNE-EN 50267-2-2). Baliabide osagarriak, laguntzak, jasotzeko bitartekoak (hala dagokionean), pilaketa, biltegiratzea, material txikia eta abar barne. Kablearen kanpoko estalkian egongo dira serigrafiatuak betetzen dituen araudiak. Nahitaez eman beharko zaio zuzendaritza fakultatiboari kableak betetzen dituen araudien fabrikatzaileak sinatutako ziurtagiri ofiziala. Luzera unitate instalatúa neurtua, burutua, frogatua eta memorian, planoetan eta baldintza agirietan emandako zehaztapenak beteta, Zuzendaritza Fakultatiboak eta Obrarako Laguntza Teknikoak onartu ondoren.
3X2'5 mm^2-ko ELIKATZE KABLEA
